

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### ARARTEKOA

## 1452

*EBAZPENA, 2021eko martxoaren 1ekoa, Arartekoarena. Honen bitartez, teknikari bat hautatzeko prozedura iragartzen da, kontratazio publikoko eta kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketako arduradun izateko.*

Arartekoaren zerbitzuko langileen atxikipena arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera (Arartekoa sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 38.etik 40.era bitarteko artikulua, Ararteko erakundearen antolaketa eta funtzionamenduaren araudiaren 30. artikulua eta ezarri beharreko gainerako arauak), arartekoak aske izendatuko ditu bere zereginak betetzeko beharrezkoak diren aholkulariak eta konfiantzako langileak, merezimendu eta gaitasun irizpideei jarraiki. Langile horiek aldi baterakoak dira.

Aipatutako araudia betez, Arartekoak prozedura bat iragartzen du hautagaien egokitasuna ebaluatzeko. Ondoren, arartekoak deialdi honen xede diren arloetako teknikari arduraduna izendatuko du.

Beraz, hauxe da prozedura honen xedea: espezializatutako balorazio-batzorde batek arlo horietan ezagupenak eta lanbide-eskarmentua dituzten pertsonak hautatzea.

Hona hemen deialdiaren oinarriak:

#### OINARRIAK

Lehenengoa.– Iragarritako lanpostuaren profila.

Deialdi honen bidez, teknikari bat hautatu nahi da, kontratazio publikoko eta kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketako arloez arduratzeko.

Deialdi honetan parte hartzeko behar den espezializazioa kontuan hartuta, hautaturiko pertsonak ondo ezagutu beharko ditu administrazio antolaketa orokorra eta administrazio publikoen funtzionamendua. Horrez gain, egiazta daitekeen eskarmentua izan beharko du kontratazio publiko eta kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketako arloetan.

Kategoria horretarako ezarrita dagoen ordainsaria, erakundearen aurrekontuan zehaztuta dago. Arartekoaren webean kontsulta daiteke: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

Bigarrena.– Betekizunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, interesdunek Zuzenbidean edota Ekonomian lizenziatura edo gradua dutela egiaztatzen duen unibertsitate-titulua izan beharko dute eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako, eta gutxienez bost urteko lan-eskarmentua dutela iragarritako lanposturako ezarri den espezializazioaren antzeko zereginetan.

Hirugarrena.– Merezimenduak.

Merezimenduak frogen bitartez egiaztatu beharko dituzte parte-hartzaileek. Oro har, merezimendu hauek hartuko dira kontuan:

- 1.– Titulu akademikoak.
- 2.– Administrazioan egindako ibilbidea: zer lanpostu bete dituzten administrazio publikoetan.
- 3.– Lanbide jarduera.
- 4.– Prestakuntza-ikastaroak.
- 5.– Euskara eta Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizial batzuk jakitea.

Balorzio Batzordeak zenbait irizpide ezarriko ditu merezimendu horiek baloratzeko. Bai aurrez izandako eskarmentuarekin, bai prestakuntzarekin lotutako merezimenduek zerikusia izan beharko dute bete beharreko eginkizunekin.

Laugarrena.– Eskabideak.

Deialdi honetan parte hartzeko eskabideak, ebazpen honekin batera erantsitako ereduaren arabera, Arartekoaren erregistroan aurkeztuko dira (Vitoria-Gasteizko Prado kaleko 9. zenbakian), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan xedatutako moduan, 15 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Parte hartzeko eskaerari honako hauek erantsiko zaizkio:

- 1.– NANaren fotokopia edo, bestela, atzeritarraren identifikazio zenbakiarena, pasaportearena edo agiri baliokidearena.
- 2.– Prozesuan parte hartzeko aukera ematen duen unibertsitate-tituluaren fotokopia.
- 3.– Eskarmentua egiaztatzen duten agiriak, bai administrazio publikoen arloan, bai lanbide-jardueran, halakorik bada.
- 4.– Curriculum-memoria; bertan adieraziko dira egokitzen diren inguruabar eta kontu guztiak, batik bat adierazitako merezimenduak.

Bosgarrena.– Balorzio Batzordea.

Arartekoak izendatuko du hautapen-prozesuko Balorzio Batzordea, eta honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

- Ondokoa.

Batzordekideak:

- Idazkari nagusia.
- Aurrekontu eta Ekonomia Kudeaketako eta Administrazio, Langile eta Mantentze-lanetako zuzendaria.
- Udal bateko idazkaria, HAEE/IVAPek proposatutakoa.

– Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat.

Batzordeak idazkari-lanak egingo dituen kide bat izendatuko du batzordekideen artean.

Arartekoak, hala badagokio, ordezko batzordekideak izendatuko ditu, eta horiek titularrak ordezkatuko dituzte, baldin eta haiek arrazoi bidez zeregin horri uko egiten badiote, edo eginkizun hori betetzerik ez badaukate.

Batzordekide gehienak bertan ez badaude, ezingo da batzordea osatu, ezta jardun ere. Berdin-ketarik badago, batzordeburuak izango du kalitateko botoa.

Seigarrena.– Hautapen-prozesua.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Balorazio Batzordeak erabakiko du eskatzaileak hautapen-prozedurako onartu ala baztertuko dituen.

Arartekoaren webgunean ([www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)) argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko erabakia, baita prozedura honi buruz ondoren egiten diren komunikazio guztiak ere.

Argitaratzen diren jakinarazpen orotan, NANaren, atzeritarraren identifikazio zenbakiaren, pasaportearen edo agiri baliokidearen zenbaki osoa bakarrik erabiliko da interesdunak identifikatzeko.

Hasieran baztertutako eskatzaileek hamar egun baliodun izango dituzte balizko zuzenketak edo alegazioak egiteko.

Ondoren, Balorazio Batzordeak erabakiko du eskatzaileak behin betiko onartu ala baztertu, eta lehen hautaketa egingo du, hautagai bakoitzak egiaztatutako merezimenduak baloratu.

Balorazio Batzordeak hautagai guztiei edo haietako batzuei deitu ahal izango die banakako elkarrizketak egiteko, eta, hala, hautagaien ezagupenetatik eta lan-eskarmentutik, lanpostuko eginkizunak betetzeko zer gaitasun dituzten ondorioztatu ahal izateko. Elkarrizketa horietan, beharrezkotzat jotzen bada, berariazko proba idatzi bat egin dadin eskatu ahal izango da, bete beharreko lanarekin lotutakoa.

Merezimenduak baloratu eta, hala badagokio, banakako elkarrizketak eta probak egin ondoren, Balorazio Batzordeak arartekoari proposamena egingo dio, eta hurrenkeran adieraziko ditu iragarri den lanpostua betetzeko egokientzat jotzen dituen pertsonak.

Baldintza egokiak betetzen dituen hautagairik ez dagoela irizten bazaio, lanpostua bete gabeztzat jo dadin proposatu ahal izango du Balorazio Batzordeak.

Zazpigarrena.– Izendapena.

Balorazio Batzordeak proposatutako pertsonetatik, arartekoak libreki izendatuko du hautatutako pertsona.

Hilabeteko epean hasi beharko du lanean iragarritako lanpostuan, deialdi hau ebatziko duen Arartekoaren erabakia jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Izendatutako pertsona behin-behineko langilea izango da, eta Langileen Estatutuan eta Legebiltzarreko Administrazioaren Araubide Juridikoan Eusko Legebiltzarreko behin-behineko langileentzat ezarritako araubidea ezarriko zaio.

Berehala lanpostua utzi beharko du Eusko Legebiltzarrak izendatutako ararteko berriak kargua hartzen duenean.

2021eko martxoaren 11, osteguna

Arartekoaren zerbitzura funtzionario bat lanean hasten denean, zerbitzu bereziko egoeran gertatu da bere jatorrizko administrazioari dagokionez.

Zortzigarrena.– Datu pertsonalak.

Parte-hartzaileek ematen dituzten datu pertsonalak beraien hautagaitza iragarritako hautapen-prozeduran sartzeko bakarrik erabiliko dira.

Datuak helburu jakin baterako biltzen dira; horregatik, helburu hori betetzeko behar den denboran gordeko dira, baita xede horren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak argitzeko ere. Gainera, artxibategiei eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritako epeetan gordeko dira.

Interesdunek informazio gehigarria eskatu ahal izango dute, eta, kasuaren arabera, datuak ikusi, zuzendu edo ezerezteko eskubidea baliatu ahal izango dute, edo datuak tratatzeari aurka egiteko, tratamendua mugatzeko edo datuak transferitzeko eskubidea, Datuak Babesteko ordezkarari helbide honetara idazki bat bidaliz: [lopd@ararteko.eus](mailto:lopd@ararteko.eus)

Orobat, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo ahal izango dute, beraien datuak babes ditzaten eskatu nahi badute.

Eranskinean agertzen den parte hartzeko eskabidea sinatzen badute, parte-hartzaileek espresuki eta argiro baimena emango diote Arartekoari beraien curriculumari buruzko datu pertsonalak tratatzeko, lehen aipaturiko helburua lortzeko asmoz.

Bederatzigarrena.– Inpugnazioak.

Balorzio Batzordearen ebazpenei Ararteko erakundean aurka egin ahal izango zaie, hamar egun balioduneko epean, horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 1a.

Arartekoa,  
MANUEL LEZERTUA RODRÍGUEZ.

2021eko martxoaren 11, osteguna

## ERANSKINA

TEKNIKARI BAT (KONTRATAZIO PUBLIKOKO ETA KONTABILITATE-  
ETA AURREKONTU-KUDEAKETAKO ARLOETAKO ARDURADUNA)  
HAUTATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

1	Norberaren datuak					
Lehen abizena		Bigarren abizena		Izena		
NAN edo pasaporte zk.		Jaioteguna		Nazionalitatea		
Helbidea		Zk.	Hizkia	Esk.	Solairua	Atea
Herria						
Posta kodea		Probintzia		Telefonoa		
Posta elektronikoa						

2	Eskakizunak
2.1. Ikasketa tituluak	
2.2. Laneko eskarmentua	

3	Merezimenduak		
3.1. Beste ikasketa titulu batzuk			
Tituluaren izena		Zein erakundek emana	Noiz emana

2021eko martxoaren 11, osteguna

3.2. Administrazioko eskarmentua (erakunde publikoetan aurrez betetako lanpostuak)			
Lanpostuaren izena	Zein erakundetan	Noiztik	Noiz arte
3.3. Lanbide jarduera			
Lanpostuaren izena	Zein enpresatan	Noiztik	Noiz arte
3.4. Lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak			
Ikastaroaren izena	Zein erakundetan	Ordu kopur.	
3.5. Euskara eta Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizial batzuk jakitea			

Orrialde honen behealdean sinatzen duenak eskabide honetan aipatzen den aukeraketa-prozesuan onartua izan dadin eskatzen du, bertan adierazitako datuak egiazkoak direla eta eskatutako baldintzak betetzen dituela adierazten du.

\_\_\_\_\_n, 2021eko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_ (e)an.

ESKATZAILEA